

EGUNEKO GAIAK

1. 2011ko azaroak 12ko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartzea, hala badagokio.
2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa memoria eta 2012-2013 ikasturterako ekintza proiektua.
3. 2011-12 kontuen egoera eta 2012-2013 ikasturterako aurrekontua.
4. 2012-13 ikasturterako kuoten proposamena.
5. Bazkide berriak.
6. Zuzendaritza Batzordearen berritzea
7. Oharrak eta galderak.

1. 2011ko AZAROAREN 12an BEASAINEN EGINDAKO OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA.

Aldez aurretik egindako deialdiari jarraituz, Ohiko Batzar Orokorra biltzen da Beasaingo Loinazpe Ikastetxean, honako Gai Zerrenda hau aztertzeko:

1. 2010eko azaroak 6ko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartzea, hala badagokio.
2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa memoria eta 2011-2012 ikasturterako ekintza proiektua.
3. 2010-11 kontuen egoera eta 2011-2012 ikasturterako aurrekontua.
4. 2011-12 ikasturterako kuoten proposamena
5. Bazkide berriak.
6. Oharrak eta galderak.

Ekitaldia 10:30ean hasten da, bigarren deialdian, honako IGE hauetako ordezkariak bertan direla:

“Urdanetarrak” Urdaneta LHI, “Lizarge” Lizardi BHI, “Indartze” Loinazpe BHI, “Zeruertzea” Koldo Mitxelena BHI, “Ugartemendi” Beasain BHI, “Ignacio Zuloaga” Basakaitz LHI, “Agorrosin” San Martín LHI, “Zutarri” Karmelo Etxegarai LHI, “Mandazubi” Hernani BHI, “UZIGE” J.M. Iparragirre BHI Urretxu, “Gurelohe” Errekalde LHI.

Bertan dira, halaber, Imanol Zubizarreta koordinatzailea, Jenó Aizpurua eta Garbiñe Arrizabalaga langileak ere.

1. 2010eko azaroaren 6ko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartzea, hala badagokio.

Aho batez onartzen da.

2. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa memoria eta ekintza proiektua.

Imanol Zubizarretak, Federazioko koordinatzaileak, Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa memoriaren laburpena irakurtzen du, ikasturte honetarako aurreikusita dauden ekintzak eta proiektua barne.

2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak

- **Barne jarduerak:** Batzordeak 5 bilera egin ditu, Donostian eta Urretxun. 2010eko Urrian eta 2011ko Otsailan eta Maiatzean 27 eskualdetako bilerak egin dira.
- **Kanpo jarduerak:** 2010-2011 ikasturtean 322 bilera egin dira. Nabarmentzeko datua da bilera horietako 91 Gipuzkoako lurraldetik kanpo egin direla.

2.2. IGEekin zerikusia duten gaiak.

2.2.1 Zerbitzu eskaintza:

2010-11 ikasturtean, Federazioak honako zerbitzu hauek eskaini zizkien IGEei: Kontratuen kudeaketa, liburuen salmenta, BAIKARA aldizkaria, web orria, Matrikulazio kanpaina, Boluntario eta ikasleentzako eskolako istripu aseguruak, aholkularitza eta laguntza jarduerak, Elkarteen Erregistroarekin eta diru laguntzen eskariarekin zerikusia duten gaiak, Hezkuntza arloko informazioa, dokumentazioa eta baliabideak,....

2.2.2 Formazio eskeintza:

Ikasturte honetan gurasoen formaziorako askotariko mintegiak, lantegiak edo lan saioak antolatu dira, iraupen desberdinekoak. Honako hau izan da jarduera horien programa:

- Guraso Eskolak eta Tailerrak
- Eskola Kontseiluetako eta IGEen Zuzendaritza Batzorde kide diren gurasoentzako formazioa.
- Arlo ez-arautuan kulturarteko aniztasunari buruzko eskuharatzea bideratzeko plana.
- Eskolako jangeletako begiraleekin garatzeko formazio programa.
- Eskola Kirola.

Guztira 527 saio eman dira 2010-2011 ikasturtean.

2.2.3 Beste gai batzuk

Beste hainbat gairi buruz informazio eskaintzen da:

- EHIGeko Zuzendaritza Batzordea: Jangelak, Textu liburuak, Erljioa, Jaia, Matrikulazio Kanpaina, Guraso Elkarteen Hezkuntza-Jarduera onen I. Lehiaketa, Wi-fi, Selektibitatea, Eskola Txikiak,...
- ESKOLA-KONTSEILUAK BERRITZEKO HAUTESKUNDEAK, EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA, HERRITAR ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIALERAKO FOROAREN HEZKUNTZA BATZORDEA, GIPUZKOAKO KIROL KONTSEILUA, DONOSTIAKO KONTSEILU SOZIALA, DONOSTIAKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA.
- Eskola jantokia: Greba egunak kudeatzea..

2.3 2011-2012 IKASTURTERAKO EKINTZEN PROIEKTUA

Aurreikusitako jardueren berri eman da labur-labur, eta aho batez onartu dira.

Azkenik, Batzarreko partaideak Zuzendaritza Batzordearen kudeaketari onespena ematen diote.

3 . Kontuen egoera eta 2011-2012 ikasturterako aurrekontua

2010-11 ikasturteko kontuen egoeraren azalpen laburra egiten du. Superabita dago (230,62 €); diru sarrerak 275.258,56 eurokoak dira, eta gastuak 275.027,94 eurokoak.

2011-2012 ikasturterako aurreikusita dagoen aurrekontuan, berriz, diru sarrerak eta gastuak 310.500,00 eurokoak izango dira.

4. 2011-2012 Ikasturterako kuotak

2011-2012 ikasturteari begira, igoerarik ez izatea Batzar Orokorrari proposatzen zaio, beraz, 2011-2012 ikasturtean ikasleko 2,20 euroko kuota mantentzea.

5. Bazkide berriak onartzea.

Honako IGE hauek elkartean sartzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Eibarko UNI EIBAR-ERMUA BHIko "ARRATE" IGEa .
- Elgoibarko MEKA GLBHIko "MEKAKOAK" IGEa.
- Urrietako EGAPE LHI Ikastolako "ABALLARRI" IGEa.

6. Galderak eta oharrak.

- Bilerako parte-hartzaile batek ohartarazi digu 2011ko jaiari saldutako jantzien kalitatea oso kaskarra zela; era berean, material aukera zabalagoa eskaintzea eskatu du. Koordinatzaileak azaldu du 2012ko jaiaren arduradunak, Zarauzko IGEak, zer material salgai jarriko den aztertzen ari direla, eta eskari horren berri emango dietela.

- Zuzendaritza Batzordeak Federazioaren egoera ekonomikoari buruz Batzarrari aurkezteko proposamena.

Azken urteetako diru sarreraren eta gastuen nahiz kudeaketa ekonomikoaren azterketa xehea eginik, Federazioaren egoera ekonomikoari buruzko proposamen bat eztabaidatu eta onartu zen Federazioko Zuzendaritza Batzordeak 2011ko urriaren 19an egindako bileran. Proposamen hori Batzarrari aurkeztuko zaio, hark onespena eman diezaion; eta hauxe dio:

Egoera ekonomiko positibo horren balioespena egin eta aurrera begirako ekimenak proposatzeko unean, oso kontuan hartu behar dira honako egoera hauek, ordea:

-Krisi ekonomikoa luzatzeko eta erakunde publikoek diru laguntzak murrizteko arriskua; horrek gorabeherak eragin ditzake aurrekontuetan.

-IGEEK zerbitzuak eskaintzeko lan kontratuak egin behar izanez gero, lan arloko legedia ezarrita, litekeena da kalte-ordainak ordaindu behar izatea langileei, haiek ematen zuten zerbitzua amaituz gero.

-7-10 urtean Federazioko langile talde osoa berritzeko premia; lan arloko legediak horretarako aukera emanez gero, txanda kontratuen bidez berrituko lirateke koordinatzailearen, formazio arduradunaren eta giza baliabideen kudeaketa arduradunaren lanpostuak.

Etorkizunari begira aurreikusten diren egoerei aurre egiteko hiru erreserba funts sortzea, diruzaintzako gaur egungo soberakinek hornituak, eta datozen ekitaldi ekonomikoetan kontrol ekonomiko zorrotza ezartzea.

Proposamena aho batez onartzen da.

Beste gairik aztertu gabe amaitzen da Ohiko Batzar Orokorra, hamabi ta erdietan.

2. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 2011-2012 IKASTURTEKO KUDEAKETA MEMORIA ETA 2012-2013 IKASTURTERAKO EKINTZA PROIEKTUA

BAIKARAK 2011-2012 ikasturtean egindako lanaren funtsa Federazioko kide diren 154 IGEei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzea izan da, eta garrantzi handia izan du, orobat, oraindik Federazioko kide ofizial ez diren (20) gainerako Elkarteeetako koordinazio lanak.

2011-2012 ikasturtean ondoren aipatzen diren jarduera hauek bideratu dira, Zuzendaritza Batzordeak prestatu eta 2011ko azaroan egindako Batzarrak onartutako Planaren arabera.

2.1. Zuzendaritza Batzordearen jarduerak

Barne jarduerak: Zuzendaritza Batzordeak 5 bilera egin ditu.

Zonaldeko bilerak: 27 eskualde bilera egin dira, 2011ko irailean (%46) , eta 2012ko urtarrilan (%35) eta 2012ko maiatzean (%41).

Era berean, IGEei informatizazio proiektua aurkezteko xedez, ezohiko eskualde bilerak egin ziren 2011ko azaroan; 42 IGEk parte hartu zuten bilera horietan.

Kanpo jarduerak: 2011-2012 ikasturtean 343 bilera egin dira , honela banatuak:

- IGEekin: 132 bilera, horietako 27, eskualdekoak.
- Ehige Konfederazioa: 34 bilera.
- Eusko Jaurlaritza: 29 bilera
- Udalak/Foru Aldundia: 34 bilera
- Eskola Publikoaren Jaia: 28 bilera
- Jardunaldiak eta mintegiak: 30 jardunaldi
- Euskadiko Eskola Kontseilua: 12
- Bestelakoak: 44 bilera

Nabarmentzeko datua da bilera horietako 132 Gipuzkoako lurraldetik kanpo egin direla.

2.2. IGEekin ZERIKUSIA DUTEN GAIAK:

2.2.1. Zerbitzu eskaintza

2011-2012 ikasturtean, Federazioak honako zerbitzu hauek eskaini zizkien IGEei:

- **Kontratuen kudeaketa:** Batez beste, 200 kontratau baino gehiago kudeatu ditugu hilean. Kontratu horiek guztiak 96 ikastetxe hartzen dituzte. IGE eta ikastetxeek kudeatzen dituzten zerbitzuen artean, honako hauek dira, nagusiki, langileak kontratatzekeo premia dakartenak: zaintza, kiroletako koordinatzaileak, eskola orduz kanpoko jarduerak... PROA programarako begiraleak ere kontratu behar izaten dira.
- **Liburuen salmenta:** 2011/2012 ikasturtean liburu eta eskola materialen erosketa kudeatu dugu, Gipuzkoako 38 ikastetxerentzat.
- **Aldizkaria:** 2011-2012 ikasturten "Baikara" aldizkariaren bi zenbaki kalaretu ditugu. Zenbaki bakoitzeko 28.000 ale banatu dira, 25.000 elebidunak eta 3.000 euskara hutsez.
- **Web orria** (www.baikara.org): 2011ko urtarrilean, Federazioaren webgunea berriro genuen. Orain, funtzionamendu dinamikoagoa du, eta orrialdearen erabiltzaileek haren edukari buruz duten iritzia biltzeko aukera ematen du.
- **Matrikulazio kanpaina:** 2012ko otsailean egin zen. Baikararen publizitatea sartu da Gipuzkoako 18 ikastetxeren propagandan, Donostiako 18 ikastetxeen eta Debagoieneko 12 ikastetxeen propaganda bateratuan.
- **Boluntarioentzako aseguru:** 2011-12 ikasturtean boluntarioentzako 172 aseguru egin dira.

- **Ikasleentzako eskolako istripu aseguruak:** 2011-2012 ikasturtean, 7 ikastetxetako 1.216 ikaslek egin dute aseguru hori.

- **Aholkularitza eta laguntza jarduerak.**

BAIKARAKo kide diren IGEentzako aholkularitzako eta laguntzako jarduera espezifikoak sartzen dira atal honetan. IGEek IGE gisa dituzten funtzioak betetzeko eta IGEek parte hartzen duten kudeaketa eta parte-hartze sektorialeko beste organo batzuetan duten zeregina betetzeko laguntza eta orientazio gisa har daitezke.

Hiru programa hartzen ditu arlo honek bere baitan: IGEen dinamizaziorako egitaraua, Orientazio eta aholkularitza egitaraua eta Informazio egitaraua

2011/2012 ikasturtean, 6 IGE baino gehiagoren estatutuak aztertu eta aldaketa proposamenak bideratu ditugu. 2012-2013 ikasturtean, falta diren 12 IGEen estatutuak eguneratzeko asmoa dugu eta horrela eginkizun honekin bukatu.

- **Elkarteen Erregistroarekin eta diru laguntzen eskariarekin zerikusia duten gaiak.**

Hiru atal dira nabarmentzekoak:

- Elkarteen Erregistroan Zuzendaritza Batzordeen osaera egunera dezaten IGEekin egin beharreko kontzientziazio lana. Izapide horrek erraza dirudi, baina IGE askok huts egin ohi dute betebeharrak horretan. Izan ere, etengabeko aldaketak gertatu ohi dira Zuzendaritza Batzordearen osaeran (bi urtez behin osorik aldatu ohi dituzte, oro har), eta kide berriek ez dute jakiten eguneratze hori egin beharrekoa dela. Egoera horren ondorioz, Federazioak berak hartzen du aurrea auzi honetan eta berak egin ohi ditu Zuzendaritza Batzordeen osaera eguneratzeko izapideak eta gestioak, Elkarteen Erregistroaren aurrean. Hala, 2011/2012 ikasturtean zehar, Zuzendaritza Batzordeen 62 aldaketari buruzko izapideak egin genituen Elkarteen Erregistroan.
- IGEentzako diru-laguntzen kudeaketa eta izapideak, bereziki, Hezkuntza Sailak eta Donostiako Udalak banatzen dituzten laguntzei dagozkienak. 2012rako diru laguntzen eskariak 2012ko irailean atera ziren. BAIKARAK 110 laguntza eskari izapidetu ditu; hau, da, Federazioko kide diren IGE guztien %78enak.
 - IGEek zerga betebeharrak eta, bereziki, Elkarteen zergari dagozkion betebeharrak betetzeko laguntza. IGEak, irabazi asmorik gabeko elkarteak izan arren, behartuta daude urtero Elkarteen Zergaren aitortpena egitera. Traidizioz, IGE gehienek ez zuten betebeharrak hori bete izan, baina horrek ez zuen inolako ondorioz izaten beren funtzionamenduan. Diru-laguntza publikoak banatzeko araua aldatu egin zuten, ordea, eta, harrezkero, gero eta gehiagotan gertatzen ari da erakunde publikoak eta, batez ere, udalek, zergen ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen egiaztagiria aurkezteko baldintza ezartzea, laguntzak emateko. Eta, jakina, IGEek Elkarteen Zergaren aitortpena egiteko ohiturarik ez dutenez, zailtasunak sortzen ari dira laguntza publikoak eskuratzeko garaian, orain artean ez bezala. Ildo horretatik, Federazioa IGEei aholkularitza eskaintzen ari zaie, egin beharreko izapideak eginda, Foru Ogasunean eskariak aurkezteko. Gainera, 2008az geroztik, telematika bidez besterik ezin dira aurkeztu, eta horretarako, gako elektronikoa eskuratu beharra dago Foru Ogasunean. Orain arte 36 IGE tramitatu dute ordezkariak elektronikoa.

- **Hezkuntza arloko informazioa, dokumentazioa eta baliabideak.**

2001-2002 ikasturtetik hona, zabalik da Hezkuntza Informazio, Dokumentazio eta Baliabideen Zentroa. guraso, IGE eta Ikastetxe guztiei eskaintzen dizkie bere zerbitzuak.

Honako kontsulta baliabide hauek aurki ditzake erabiltzaileak bertan:

- Buletinak eta informazio ofiziala.
- Ekintzetarako materiala eta beste elkarte eta ikastetxe batzuenak.
- Balioetan oinarrituriko hezkuntza, prebentzioa...
- Heziketa behar bereziak.
- Beste ikastetxe batzuen informazioa eta estekak.
- Erakundeen informazioa.
- Hezkuntza zerbitzuei buruzko informazioa.
- Hemeroteka.

- Hezkuntza orientazioa eta orientazio profesionala.
- Ikasteko teknikak.
- Elkarte eta baliabide interesgarriak.
- Irakasleak.
- Sindikatuak.
- Informatika.
- Bestelakoak.

Ikasturte honetan 1.720 kontsulta egin dituzte baliabideei eta dokumentazioari buruz, gehienak Federazioko kide diren IGEEtako kideek; kontsulta horien %95 urrunekoak izan dira (telefonoz, e-mailez,...) ez bertatik bertarakoak.

2.2.2 FORMAZIO JARDUERAK

BAIKARAK bere bazkideei eskaintzen dizkien formazio ekintzen koordinazioa formazio zerbitzuak gauzatzen du. Zerbitzu horrek bideratzen ditu gurasoentzako formazio ekintzak, eta ekintza bakoitzari formazio estilo jakin bat ematen saiatzen da, gurasoen eskaeraren araberrako ezaugarri, helburu eta abarrak finkatuz. 2010-2011 ikasturtean, zabaldu egin da gurasoei begirako formazio eskaintza, eta eskola kirolean beste aukera bat erantsi da.

Mintegi, tailer edo lansaio modura antolatutako programak izan dira, hainbat iraupenetakoak. Honako hauek dira eskaintako programak:

2.2.2.1 GURASO ESKOLAK ETA TAILERRAK

IKASTETXEAK	GAIAK	SAIOAK
CRISTOBAL GAMON LHI- Erreterria	Educamos igual a los hijos y a las hijas	1
KOLDO MITXELENA LHI - Erreterria	Educamos igual a los hijos y a las hijas	1
VILLABONAKO UDALA	Adimen emozionala Gurasoen eta seme alaben emozioak hezi Autoestimua Familia agintea Diziplinatik autodiziplinara Familiaren garrantzia nerabezaroan Drogomenpekotasun prebentzioa	3 3 3 3 3 3 1
EIBARKO UDALA	Corresponsabilidad familiar Autoridad familiar Como sentirnos bien y seguros Familia-escuela: una tarea común Zer jakin behar dugu sare sozialaren buruz Disciplina positiva Estrategias para educar Autoestima en la adolescencia Conviviendo entre culturas Aspectos del desarrollo y estrategias	1 1 1 1 1 2 1 1 1 1 1
DUMBOA BHI- Irun	Nerabezaroak Estrés bideratzea	3 6
ELGETA LHI	Diziplina postiboa Heziketa sexuala	1 1
MENDARO IKASTOLA LHI	Autoestimua Familiaren garrantzia nerabezaroan	3 3
IMAZ BERTSOLARIA LHI - Altzo	Gurasoentzako hezkuntza estrategiak	1
SAN MARTIN LHI - Errezil	Sare sozialak	1
BASAKAITZ LHI - Aizarnazabal	Autoestimua Oihurik gabe hezi	1 1
EGAPE IKASTOLA LHI - Urnieta	Familiaren erantzukizunean hezi, arduradun hezi eta heziketa emozionala	3
ABALTZISKETA ESKOLA	Sare Sozialak Drogomenpekotasunaren prebentzioa	1 1

JUAN XXIII LHI - Lizartza	Oihurik gabe hezi	3
ZESTOA LHI	Sare sozialak Ikasteko zailtasunak eta trebetasunak	1 1
GOIZEKO IZARRA IKASTOLA – Mutriku	Oihurik gabe hezi Diziplina positiboa Gizarte trebetasunak eta gatazken konponketa	1 1 1
LAIOTZ LHI - Segura	Guraso bezala seguru eta ondo nola sentitu	1
ELIZATXO IKASTOLA LHI - Hernani	Oihurik gabe hezi Ikasteko zailtasunak	1 1
ANTIGUA-LUBERRI BHI - Donostia	Autoestimua Gizarte trebetasunak Oihurik gabe hezi	1 1 1
JUAN ZARAGÜETA LHI - Orio	Autoestimua Diziplina positiboa	1 1
SAN ANDRES LHI - Ormaiztegi	Sare Sozialak	1
INTXAURRONGO IKASTOLA – Donostia	Guraso Tailerrak	2
MENDATA BHI – Deba	Redes Sociales	1
LUZARO LHI – Deba	Como disfrutar de buenas relaciones en la infancia	1
IBAI IKASTOLA - Donostia	Behatokia aholkularitza Guraso Tailerrak	6 6
AIETE LHI - Donostia	Guraso tailerrak	6
ALTZA LHI - Donostia	Guraso Tailerrak Relaciones entre hermanos	6 1
MUTRIKU BHI	Guraso Tailerrak	6
BELASKOENEA LHI - Irun	Guraso tailerrak	5
HARRI BERRI-OLETA LHI Donostia	Guraso Tailerrak	6
LARDIZABAL LHI - Zaldibia	Kultur artean elkar bizi	1
SASOETA-ZUMABURU LHI Lasarte	Guraso Tailerrak	10
HERRERA LHI - Donostia	Cuéntame un cuento Guraso Tailerrak	1 6
ELGOIBAR LHI	Deporte escolar como herramienta educativa Familia-escuela: una tarea común	1 1
IGNACIO ZULOAGA BHI - Eibar	Como educar sin gritar a los adolescentes	1
IKASBIDE IKASTOLA - Donostia	Guraso tailerrak	3
ZUAZOLA-LARRANA BHI - Oñati	Como motivar a los hijos e hijas	1
ERREKALDE LHI - Oñati	Gatakei aurre egin	4
ONDARRETA LHI – Andoain	Autoestimua Disciplina positiva	1 1
AZKOITIAKO UDALA	Redes sociales	4
MUTRIKU BHI	Aholkulatitza	4
SASOETA ZUMABURU - Lasarte	Aholkularitza	2
MENDATA BHI – Deba	Aholkularitza	10

GUZTIRA : 172 SAIO

2.2.2.2 JANGELAKO BEGIRALEEN FORMAZIOA:

IKASTETXEAK	GAIAK	SAIOAK
- MENDARO IKASTOLA LHI	Modulo I-II	6
- EGAPE IKASTOLA LHI - Urnieta	Módulo I	2
-SASOETA-ZUMABURU LHI - Lasarte	Módulo I-II	5

2.2.2.3 ESKOLA KIROLARI LOTURIKO FORMAZIOA

Sei saio egin dira.

2.2.2.4 ARLO EZ-ARAUTUAN KULTURARTEKO ANIZTASUNARI BURUZKO ESKU-HARTZEA BIDERATZEKO PLANA

Formazio hau ikasleentzako antolatua da, bereziki, eta honako programa hauek landu dira:

1. JOLASEAN ELKAR EZAGUTU: 44 saio egin dira.
2. JOLASEAN ERABAKIAK HARTU: 54 saio egin dira.
3. JOLASEAN EGINEZ ERRONKEI AURRE EGIN: 175 saio egin dira.
4. JOLASEAN ELKAR ONARTZEN DUGU: 40 saio egin dira.
5. JOLASEAN MUSIKAZ GOZATZEN DUGU: 39 saio egin dira.
6. SARE SOZIALEKIN JOLASEAN: 3 saio egin dira
7. JARRAIPEN PROGRAMA: 7 saio gin dira.
8. IRASKALEEKIN BILERAK: 42 ordu

Guztira: 362 saio

2.3 BESTE GAI BATZUK.

- EHIGeko Zuzendaritza Batzordea: "EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO" Foroa, Jangelak, Textu liburuak, Laikotasuna, Matrikulazio Kanpaina, Guraso Elkarten Hezkuntza-Jarduera onen II. Lehiaketa, CEAPA, Eskola Txikiak,...
- GURASO ELKARTEEN INFORMATIZAZIOA
- GIPUZKOAKO PLANIFIKAZIOAN ALDAKETAK (DONOSTIA, IRUN)
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA
- HERRITAR ETORKINEN INTEGRAZIO SOZIALERAKO FOROAREN HEZKUNTZA BATZORDEA.
- GIPUZKOAKO KIROL KONTSEILUA.
- DONOSTIAKO KONTSEILU SOZIALA.
- 2012KO ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA ZARAUTZEN

2.4 2012-2013 IKASTURTERAKO EKINTZE PROIEKTUA

2012-2013 ikasturteari begira, honako lehentasun hauek aurreikusten dira BAIKARARI dagokion lanean:

- IGEen estatutuak eguneratzen amaitzea.
- Eskola Kontseiluetako hauteskundeak
- Eskola Mapari jarraipena egiteko Gipuzkoako Lurraldean osatu den "Jarraipenerako Lurralde Batzordea"an parte hartzea.
- Guraso Elkarteetan Informatizazio egitasmoa abian jarri
- IGEentzako zerbitzuak: aholkularitza, informazioa, liburu salmenta, kontratuak, aseguruak, ordezkariak...
- Gipuzkoako Foru Ogasunean aurrean IGEek izan beharreko ordezkariak fiskala izapidetzea.
- Eskola jangelak: zeharkako kudeaketa duten beste ikastetxe batzuen esperientzien jarraipena egitea, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea beste ikastetxe batzuetan era horretako kudeaketa ezartzeko baimena eman dezan. Negoziatzen jarraitzea, zuzeneko kudeaketa duten jangeletan hobekuntzak egiteko
- Testu liburuen mailegu sistemaren jarraipena.
- Hezkuntza Sailak hezkuntza kudeaketako gastuak murrizteko hartutako neurrien jarraipena: irakasleen ordezkariak, eskola garraioaren ibilbidea, eskoletako eraikinetan egin beharreko inbertsioak, dirulaguntzetan...
- "Baikara" aldizkaria: ikasturtean, hiru zenbaki argitaratuko dira, azaroan, martxoan eta maiatzean.
- Foroetako partaidetza: "Immigrazio Foroaren Hezkuntza Batzordea", "Euskadiko Eskola Kontseilua", "Donostiako Gizarte Kontseilua", "Donostiako Udaleko Euskararen Aholku Batzordea" ...
- **EHIGE** Konfederazioko Lehendakariarekin jarraitzea: 2012-2013 ikasturterako lehentasunak hauek izango dira:
 - Euskal Eskola Publikoaren irudia hobetzea, honako ekimen hauen bidez: komunikazio plana lantzea, "Euskal Eskola Publikoa Haratago" dokumentu estrategikoaren zabalkundeak sustatzea, familiekiko komunikazioa hobetzea, "Eskola" marka sortu eta zabaltzea, IGEen Jardunbide Egokien II. Jardunaldia antolatzea (azaroak 17, Bilbo)
 - Hezkuntza politika: Eusko Jaurlaritza berriarekiko harremana, arreta berezia emanaz hezkuntza publikoaren sektorean ezar lezaketan balizko murrizketa politikari; hezkuntzaren erreformari aurre egitea (LOMCE), matrikulazio kanpaina, eskola mapa, laikotasuna, eskola jangelen eta eskola garraioaren araudien azterketa.

3.- 2011/12 KONTUEN EGOERA eta 2012/13rako AURREKONTUA

3.1 KONTUEN BALANTZEA 2011-09-01etik 2012-08-31ra (2011-12 IKASTURTEA)

DIRU SARRERAK

- Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza:	82.709,73
- Donostia Udalelo diru laguntza:	2.615,00

OROTARA..... 85.324,73 €

- IGEen KUOTAK 97.856,00 €

- BESTE ZENBAIT SARRERA

Emaitzak. Liburuak	14.026,67
Kontratuaren kudeaketa	53.306,00
Materiala	799,88
Aseguruaren kudeaketa	2.447,85
Finantzak	273,24

OROTARA..... 70.853,64 €

- EGITASMOAK

“Baikara” aldizkaria	16.100,00
Heziketa / Kulturantzatasuna	55.922,50

OROTARA..... 72.022,50 €

DIRU SARRERAK OROTARA 326.056,87 €

GASTUAK

- MATERIAL HIGIEZINA

- Informatika	1.918,68 €
---------------	-------------------

- LANGILEAK

- Langileetan gastatutakoa	142.794,31
- Prebentzioa/Fomazioa	5.082,48

OROTARA 147.876,79 €

- OROKORRAK

- Alokairuak eta kanonak	5.418,89
- Besteri eskatutako lanak	2.733,08
- Garraioak eta posta	2.512,27
- Aseguruak	4.513,17
- Publizitatea eta harremanak	2.522,80
- Hornidurak	7.742,61
- Ordezkaritza	10.671,41
- Bulegoko materiala	2.093,99
- Zergak	254,34
- Harpidetzak-Liburutegia	1.178,41
- Zerbitzuak eta fotokopiak	719,13
- Finantzak	273,29
- Konponketak	1.013,66
- Web orria	138,60

OROTARA 41.785,75 €

- **EHIGE Konfederazioa**..... 4.428,00 €

- **EGITASMOAK**

- “Baikara” aldizkaria 21.085,85
- Heziketa / Kulturantzatasuna 72.068,33
- Guraso Elkarten informatizazioa 22.632,40

OROTARA 115.786,58 €

- **GURASO ELKARTEEI LAGUNTZA** 14.000,00 €

GASTUAK OROTARA.....325.795,80 €

DIRU SARRERAK OROTARA 326.056,87 €

SUPERAVITA 261,07 €

3.2 AURREKONTUA 2011-09-01etik 2012-08-31ra (2011-2012 IKASTURTEA)

DIRU SARRERAK

Funtzionamendu gastuentzako dirulaguntzak: 76.650,00 (% 26)

- Hezkuntza Saila: 74.300,00
- Donostiako Udala: 2.350,00

FORMAZIO Egitasmorako dirulaguntzak: 32.650,00 (% 11)

- Eusko Jaurlaritzako Inmigratio Zuzendaritza: 11.950,00
- Donostiako Udala: 11.700,00
- Hezkuntza Saila: 9.000,00

BAIKARA ALDIZKARIA egitasmorako dirulaguntzak: 10.950,00 (% 3,8)

- Donostiako Udala: 9.000,00
- Kutxa Fundazioa: 1.950,00

Kanpoko diru-sarrerak: 120.250,00 (% 40,8)

Bazkideen kuotak: 97.500,00 (%33)

Zerbitzuak emateagatik sarrerak: 75.250,00 (%26,2)

Berezko diru-sarrerak: 172.750,00 (%59,2)

GUZTIRA: 293.000,00 €

GASTUAK

Pertsonal gastuak: 156.800,00 (%53,50)

Funtzionamendu gastuak: 61.900,00 (%21,10)

FORMAZIO egitasmoa: 51.500,00 (%17,60)

BAIKARA ALDIZKARIA: 22.800,00 (%7,8)

GUZTIRA: 293.000,00 €

4. 2012-2013 IKASTURTERAKO KUOTAK

2012-2013 ikasturterako azken lau kurtsotan izan den kuota berdinarekin jarraitzea proposatzen da. Hau da 2,20 euro ikasle bakoitzeko

5. BAZKIDE BERRIAK

Honako IGE hauek elkartean sartzeko egindako eskaria onartzea proposatzen da:

- Irungo DUMBOA BHIko "BIDEGORRI" IGEa .

6. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BERRITZEA

7.- GALDERAK ETA OHARRAK